


COVID 19 Koronabirusa: Isolamendu egoera ezarrita

Ikastetxeak, gizarte bizitza, lan mundua... Osasun mailako krisiak eragin handia izan du pertsonen eguneroko bizimoduan / 2-16

Osasun mailako arazo larri baten aurrean gaude

Martxoak aurrera joan ahala, neurriak gogortuz joan dira. Gomendioak prebentzio neurri bilakatu dira, eta segidan agindu. Arduraz jokatzeko garaia iritsi da. / 1-16



Eskualdeko sagardogileek amaitutzat ematen dute txotx denboraldia / 10



Italiako esperientzia bertan bizi diren Maialen eta Libe Irazu andoaindarren eskutik / 9



Eduki berriak eskegiko dira Aiurri.eus wegunean, isolamendu garaia arinagoa egin asmoz / 16


Martxoaren 20an 'Ttap' berritua!

Edizio bateratua
Diseinu berritua
Erreportajeak
Kolaboratzaile berriak
'Gorabeherak' websaila...

ttap
Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari
digitala, deskargatu
astero zure mugikor
edo tabletan





GARBIÑEUBEDA

Osasun alarma egoera

Bizimodua eraldatu duen egoera berri baten aurrean gaude, Covid-19 Koronabirusak eraginda. Azken egunotan etenik gabe haziz doa kutsatutako pertsonen kopurua, eta erakundeek Alerta Egoera ezartzea erabaki dute. Azken egun hauetako kronologia ikusita, pertsonen mugimenduak murrizteko joera mailakatua izan da. Krisian murgilduta, gutxienez bi astez luzatuko den bakartze ariketa kolektiboari hasiera eman zaio

Gertaeren kronologia



Sareetan otsailaren 29an zabaldu genuen, webgunean martxoaren 2an. AIURRI

Otsailak 29 Aiurriko erredakzio taldeak arreta ipini zuen eguna: "Sintomak izanez gero, hala nola, sukarra, eztula edo aire-faltaren sentrazioa, etxean edo ostatuan geratu behar duzu eta berehala jarri behar duzu Osasun Aholkuarekin (900 20 30 50) harremanetan".



Osasun sailak argitara eman zuen lehen posterra, Aiurriko orrialdeetan. AIURRI

Martxoak 5 Tokiko hedabideetan Osakidetzaren informazio kanpaina txertatu ez bazituzten ere, Aiurriko lantaldeak Osasun Sailaren gomendioak eta argitaratu zuten lehen posterra argitaratu zuen. Interes orokorreko oinarritzko informazioa zelako.



Eider Mendoza Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramailea. AIURRI

Martxoak 6 Foru Aldundiak Covid-19aren aurrean "jarduteko eta prebenitzeko" protokoloa bidali zien Gipuzkoako egoitza eta eguneko zentroei. Sarreraren kontrola, bisitak mugatzea eta zentrori sartzeko gune bakarra gaitzea agindu zuten.



Urnietako gizarte bizitzan Guria taberna herrikide ugariren bilgune da. Egun hauetan itxita ikustea oso adierazgarria da. AIURRI

Koronabirusa Andoainen eta Urnietan

KRONOLOGIA Andoainen, Urnietan, Gipuzkoan eta Euskal Herrian Koronabirusak izan duen garapena jaso da orriotan. Alarmak aurreko astean piztu ziren eta, antza guztien arabera, egoera zaildu eta luzatu egingo da

Erredakzioa ANDOAIN

Urtarrilean urruneko zerbait zirudien, eta otsailean inauterietako parodiatako batean bilakatu zen. Martxoa iritsi denean piztu da alarma gorria. Areagotuz doa, gainera, bolumenean goruntz doan iratzargailuaren sintonia bezala. Egun gutxiren bueltan aholkuak eta gomendioak areagotuz joan dira. Eta, ondoren, zuzenean gomendioak agindu

bilakatu dira. Mundua kolpatu du, eta Asiatik abiatu eta gero Europan dago epizentroa. Italian gorriak pasatzen ari dira, eta Euskal Herria eta espainiar estatua norabide berdinetik doaz. Aurreko astean jauzi kualitatiboa eman zen. Ikastetxeak itxiko zituztela iragarri zutenetik jendea egoeraren larritasunaz jabetzen hasi zen. Asteburuan polizia ezberdinak Espainiako Gobernuak

eta Lehendakaritzak ezarritako neurri zorrotzak betearazten ahalegindu ziren. Astearen hasieran enpresa handiak itxen hasi ziren, eta horrek egoeraren larritasuna areagotu du.

Aiurriko erredakzio taldeak orriotan gertaeren kronologia bildu du. Historiara pasako den garaia bizitzen ari gara. Kaltea ahalik eta arinena izan dadila egoera hau bizi dugunontzat.



Aiurri eskuragarri:
Ebeze ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.





Lainez alkateak agerraldia egin zuen martxoaren 10ean, Udal ordezkariak eta Gizarte Zerbitzuetako burua alboan zituela. AIURRI

Lasaitasunerako mezua

MARTXOAK 10 Koronabirusaren lehen biktima andoaindarra zela jakin zenetik, herrikide ugari kezkatzen hasi ziren. Martxoaren 9ko ezbeharraren berehala zabaldu zen herrira, eta asko izan ziren

udaletxera deika hasi ziren. Udalak agerraldia deitu zuen, herritarrek lasaitzeko eta hildakoari doluminak agertzeko. Gomendioak zorrotz jarraitzeko deialdia egin zuen Maider Lainez alkateak. Alboan zituen Udal ordezkariak eta Ana Sanz Gizarte Zerbitzuetako burua.



Adinekoen egoitzako langile bat atarian eskuak garbitzeko gunean. AIURRI

Kontrol neurri zorrotzak

MARTXOAK 10 Ama Kandida etorbideko San Juan Bautista Bataiatzailea Zahar Egoitzara sartzeko eta bertan egoteko protokolo zorrotza ezarri zuten. Hasteko eta behin, sartzeko eta irteteko eskuak

garbitu behar ziren. Sarbidean, gainera, erizainek sartzen diren guztiei gorputzaren tenperatura hartzen zieten. Aste osoan zehar bisitaldian hurbilduko zen senidea edo bisitaria pertsona berbera izatea aholkatu zuten. Pertsona bakarra, eta ordubeteko bisitaldia.

Gertaeren kronologia



Haur bati martxoaren 10ean hartutako tenperatura, Andoainen. AIURRI

Martxoak 9 Osasun Saila haurren eta ikastetxeen eremura begira jarri zen. Egutero haur bakoitzari etxean tenperatura hartu behar zaiola agindu zuten: "37C-ko tenperatura badu edota arnasa hartzeko arazoak antzematen bazaizkio etxean utzi haurra".



Eusko Jaurlaritzako ordezkarien agerraldia. AIURRI

Martxoak 9 69 urteko emakumezko andoaindarra izan zen Covid 19 positiboarekin hildako lehen gipuzkoarra. Osakidetza prentsa agerraldian aurreratu zuenez, "aurretiaz gaixotasun gehiago zituen".



Osasun Saileko instalakuntza guztietan gomendioak zabaldu zituzten. AIURRI

Martxoak 9 Martxoaren 8tik 9ra 46 kasu gehiago antzeman ziren EAEn, 144 kasu positibo erregistratzeraino. Epidemiologiako eta Osasun Publikoko adituei jarraituz, Eusko Jaurlaritzak gomendioak betetzeko "erantzunkidetasuna eta elkartasuna" eskatu zuen.

Gertaeren kronologia



Berehala desagertzen zirenez, sarrerako maskarilak kendu egin zituzten. AIURRI

Martxoak 11 Gela berezia prestatu zuten Andoaingo Anbulatorioan, erizain baten ardurapean zegoena. Sintomatologiarekin (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasunak...) zetorren herritarra gela horretara bideratzen zuten.



Eguneko zentroa Anbrosia Olabide eraikinean dago. AIURRI

Martxoak 11 Aurreko egunetan, neurri prebentibo gisa, eguneko egoitzara hurbiltzen ziren hamar pertsona etxean geratzeko gomendatu zieten. Eztulka edo arnasa hartzeko arazoak zituztelako, prebentzio neurri hori hartu zuten.



Jaurilaritzako Osasun Sailburu Nekane Murgak egin zuen iragarpena. AIURRI

Martxoak 12 Asteazkenean Ibili Andoain edota Bingoa bertan behera utzi zituzten. Murgak neurri zorrotza iragarri zuen: "Gizartean duten eragina handia den arren, erabakiorra da une honetan COVID-19aren zabalkundea gerarazi nahi badugu".



La Salle Berrozpe ikastetxea, Kaletxikin. Ostegunean ateratako argazkia, 15 eguneko itxieraren bezperan. AIURRI

Ikastetxeak ixtea erabaki zuten eguna

MARTXOAK 12 Labastidan eta Gasteizen hartu zuten erabakia, lehen lehenik. Egun gutxira ikastetxe guztiak ixteko erabakia Gipuzkoara eta Bizkaira zabaldu zen. Helburua argia zen, kutsadura kasuak zabaltzea eragozte

Erredakzioa ANDOAIN

"Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeek –haur-eskolak, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak– eta unibertsitateek (EHU, Mondragon eta Deustuko campus-ak barne) ez dute eskola-jarduerarik izango. Eskolaz kanpoko jarduerarik ere ez da egingo. Etenaldi horrek 15 eguneko iraupena izango du, martxoaren 13tik aurrera", albiste

Aiurri.eus webgunean irakur zitekeen. Eusko Jaurlaritzako Uriarte Hezkuntza Sailburua eta Murga Osasun Sailburua izan ziren albiste eman zuten ordezkariak. Bi sailburuek adierazi zuten jakitun direla horrelako erabakiek gizartean duten eraginaz eta familietan sortzen duten ziurgabetasunaz, baina nabarmendu zuten "salbuespenezko neurriak direla, salbuespenezko egoera bati aurre egiteko, eta, adituek diotenez, ezinbestekoak direla COVID-19aren hedapena eragozteko".

Murgak azpimarratu zuenez, erabakia euste-neurria zen. "Euskadiko haurrak osasuntsu daude, baina, euren ezaugarriengatik, birusa oso erraz transmititzen duen kolektiboa da, eta beldurra da birusa haien etxetara eraman ahal izatea, bertan pertsona kalteberak egon baitaitezke, eta horien osasunean koronabirusak eragina izan baitezake".

Ikastetxeak ostegunean eta ostiralean burubelarri saiatu ziren jasotako agindua betetzen. Ahal dela, eskolaren martxa ez baita gerarazi behar. Agindua zehatza zen: "Aldi horretan irakasleei dagokie material didaktikoa prestatzea eta ikasleen eskura jartzea, ahal den neurrian, modu ez-presentzialean lan egiten jarraitu ahal izan dezaten".



Urnietako
udala



Gaztelekua, Urnietan. AIURRI

Urnietako Udalaren neurriak

MARTXOAK 12 Udal langileei telematikoki lan egiteko aukera eskaini zieten, eta ekitaldiak bertan behera utziko zituela iragarri zuen. Udal zerbitzu eta jarduerak bertan behera utzi zituzten: Kiroldedia,

liburutegia, Ludoteka, Gaztelekua, Gazte Informazio Puntua, Udaletik ematen diren ikastaro guztiak,... Bertan herritarraren arretarako bulegora beharrezkoa bada bakarrik joatea gomendatzen da". Martxoaren 16an ateak Bertan bulegoa ixtea erabaki zuten.



Aurreko astean Andoaingo kaleetan, prebentzio neurri zorrotzak ezarri aurretik. AIURRI

Andoaingo Udalaren neurriak

MARTXOAK 12 Ekitaldi masibo edo jendetsuetara joatea mugatzea erabaki zuten, eta horrek eragin zuzena izan zuen Udal programazioan eta agendan. Baita haurtzaindegia, kirol eta gizarte zerbitzuen

jardueretan ere. Alluralde kiroldegia, Arrate frontoia eta Ubitarte futbol zelaiaren itxiera iragarri zuten, baita Galardi haurtzaindegiko jarduerak ere. Zerbitzu gehiagoren itxiera iragarri zuten: Musika eskola, Gazte Lokala, Ludoteka, Liburutegia,...

Gertaeren kronologia



Kirol jarduerak etetea eta kiroldegia ixtea erabaki zuten. LEIZARAN

Martxoak 12 Futbol Federazioak "bere eskumenpean dauden lurralde mailako txapelketa guztiak bertan behera uztea" erabaki zuen. Gaztelekuk "Umeen eta gazteen osasuna ziurtatu nahi du" adieraziz, jardueren etetea iragarri zuen.



Eskolen etetea eta gero, Eskola-Kirola ekimena ere eten egin zuten. MUTRIKU

Martxoak 12 Harkaitz Millan Gipuzkoako Aldundiko Kirol diputatuak Eskola-Kirola bertan behera uzteko arrazoiak eman zituen: "Eskola-kirolako jarduerak etetearen erabakia hezkuntza zentro guztietan eskolak etetearen erabakiaren bat dator".



Internet bidezkoari eusten diote, mekanizatua atzeratu da. GOIENA

Martxoak 12 Ogasun Sailak bulegoetan presentzialki egiten den errenta aitorpena atzeratzea erabaki zuen. Neurriak Errenta kanpainan aurkeztzen diren aitorpenen %20ri eragiten diola adierazi zuen. Internet bidezko zerbitzua bere horretan mantenduko da.

Gertaeren kronologia



Urkulluk agerraldia egin zuen Lehendakartzan. AIURRI

Martxoak 13 Larrialdi egoera deitu du Urkullu Lehendakariak, eta osasun emergentzia egoera horretan agente gorena hartu zuen EAE mailan. Besteak beste, "Pertsonak beren etxeetan edo leku seguruetan konfinatzea" jasotzen da 8. artikuluan.



Urnieta San Juan plaza. KULTURKLIJ

Martxoak 13 Jaurilaritzak neurriak iragarri ondoren, Urnieta Udalak neurri gehigarriak iragarri zituen. Zerbitzuan itxiera areagotu zuen, Udalaren jabetzakoak diren egoitzen jardueretara zabalduz (Euskaltegia, etab). Hilaren 29ko Slaloma bertan behera utzi zuten.



Zumea plaza, ostiral goizean. AIURRI

Martxoak 13 Andoaingo Udalak ere neurri erantsiak iragarri zituen. Terrazak jartzeko eta asteroko merkatu plazan postua jartzeko baimenak indargabetu egin zituen. Udal bilkura guztiak ateak itxita egingo direla ezarri zuten, era berean.



Aurreko astearen amaieran supermerkatuetan erosketak ugari egin ziren, apalak eta hozkailuak hustutzeraino. AIURRI

Normaltasunez, baina datorrena igarri nahian

MARTXOAK 13 Andoaingo kaleetan, jendearen erosketak-joeretan, ezjakintasuna nagusi zela antzematen zen. Kalean jende heldua ibili zen, haurrak eta gazteak ez bezala, eta erosteko orduan premia-premiazkoak diren produktuak apaletatik husten hasi ziren

Xabier Lasa ANDOAIN

Hau da martxoaren 13an Aiurri.eus gunean eskegitako kronika: Koronabirusaren krisia, urrutiko kontua dela pentsatzetik egoera gordintzeko traza daukala pentsatzera doan transizio horretan dago. Gaurtik aurrera eskolarik gabe dauden ikasle gazteak apenas ikusi dira kale eta plazatan. Bost-bat urtera iristen ez diren haur batzuk gurasoen edo aitona-amonen eskutik ikusi dira, eta hortik aurrera, lagun kuadrilla txikiren bat edo beste jolasean plazetan eta leku irekietan. Ikusita dago gaztetxo gehienek lasai hartu dutela eskolarik gabeko lehen eguna eta etxean geratu direla, loa luzatuz, teknologia berriko jokoekin jolasteko denbora hartuz... Eta jakinda, asteleheneetik aurrera, ikastetxeetatik irakasleek etxeko-lanak on-line bidaliko dizkietela, eta horiei heldu beharko dietela. Goizean zehar, kaleetan barrena jende heldua ibili da gora eta behera betiko

moduan enkarguak-eta egiten. Nolanahi ere, janari dendetan -eta bereziki saltoki handietan-, ostiral egurditan ohikoa dena baino erosle gehiago ibili da, eta saskiak bapo betetzen aritu dira. Langileak ezinean dabilta zenbait apal berriro betetzeko. Haragien, paper higienikoen, barazki eta fruten, esneen edo eta moldeko ogien apalak dira azkarren husten ari direnak.

Taberna eta kafetegietan, orohar, eguneroko bezeroak bildu dira goizean zehar. **Arruti Gozotegian** ere ez da bezero kopurua jaitsi goiz partean: "Gaur goizean eguneroko martxa ez da hainbeste aldebestu, baina egunkariak eta artoarekin egindako ogiak inoiz ez bezala saldu dira. Hortaz, bi ondorio ateratzeko: jendea informazioa gosez dagoela eta oinarritzko produktuak nahi dituela".

Bestelako egoera gertatzen ari da premia-premiazkoak ez diren produktuak saltzen dituzten dendetan. **Urrats** inprimategiko

Maitane Lopez de Munainek adierazi duenez, bezero kopurua jaitsi egin zaie azken egunetan, "argi samar dago jendea ohartzen hasi dela krisiaz, eta gerorako uzten ari dela beharrezkoak ez dituen erosketak".

Belkoain kalean ileapaindegia daukan **Lorena Tejadok** ere sumatu du jaitsiera hori: "Atzo gaur betiko bezeroak etorri zaizkigu, baina gaur telefonoa inoiz baino gutxiago ari zaigu joka; alegia, hurrengo asterako askok ez dute hitzordurik hartu nahi. Atzo-gaur ileapaindegian bezeroei eta kalean ezagun askori entzun dizkiegun komentarioei kasu eginez gero, jendeak ez du ezer lotu nahi hurrengo egunetarako. Ez dakielako zer gertatuko den. Are gehiago, ematen du arrisku bereziko sektorean kokatzen direnek (adinekoak) ez daukatela aurreikusita kalera ateratzea hurrengo egunetan, edo eta ateratzekotan, soilik jende gutxi topatuko duten toki edo dendetara arrimatuko direla".

Italiako esperientzia Irazutarren eskutik

MARTXOAK 13 Andoainen eragin eta zirrara berezia eragin zuen Facebook sare sozialean eskegi zuten mezua. Erregua zen gehiago, inguruko adinekoak zaintzeko erregutuz. Italiako esperientzia gogorra bizitzen ari baitira, eta eurak ere isolatuta daudelako

Mikel Arberas ANDOAIN

Bezperako mezuak izan zuen oihartzuna eta gero, hauxe Aiu-ri.eus webgunean bihamunean argitaratutako mezua: "Maialen Irazu Italian bizi den andoain-darra da. Egun, abokatu bezala etxetik egiten du lan, kutsatze arriskuagatik eta inguruko segurtasunagatik. Italian bizi den arren, senideak eta lagunak ditu Andoainen, hortaz, kezka du birusak herrian izango duen eraginaz.

Italian neurri zorrotzak eta muturrekoak hartu dira koronabirusaren pandemia eta kutsatzea ekiditeko; "guztia itxita dago. Italiako lurralde bakoitzean, Espainia mailan autonomia-erkidegoak direnak, neurri zehatzak hartzeko aukera dute. Soilik etxetik irten daiteke haurren beharrezko jardunerako, lanerako, erosketak egiteko edota osasun larrialdietarako".

Bere ustean, birusari dagokion zantzuren bat edukiz gero ezin da inolaz ere ospitalera joan. Italian medikuak aldizka etxetara joaten dira pertsonak aztertzerako, birus honek duen arriskurik handiena kutsatzeko duen erraztasuna baita, "anbulantziari deituz gero, eta bertan ospitalera eramaten bazaituzte, guztia desinfektatu behar dute. Gainera, beste motatako gaixotasun larriak ez dira eteten, beraz, ospitaletan jende gehiegi pilatu daiteke, eta medikuen lana izugarri zaildu".

Birusak pertsona bakoitzari modu ezberdinean eragiten dio eta hala adierazi du Irazuk, "katarro batekin edota pneumonia batekin bezala. Sardinia iparraldean bizi gara. Bertan, erreanimazioarako 23 ohe soilik daude biztanleria guztiarentzat. Eta 400.000 pertsona bizi gara zonalde horretan. Arazoa orain dator, kutsatzen hasten garen unean. Ez baitugu jende guztiari laguntzeko lekua edukiko".



Maialen Irazu aurrean eta Libe Irazu atzean. AIURRI

Italiako isolamendua barrutik

Azken asteetan albiste asko entzun eta ikusi ditugu Italiako isolamendu eta neurriei buruz; Maialenek bertatik bertara kontatu digu esperientzia: "Aspertuta eta triste gaude. Guk zor-tea eduki dugu lorategidun etxea daukagulako. Beraz, haurrak noizbehinka kanpora irten daitezke zakurrekin jolastera. Oraingoz, egoera hau apirilak 3ra arte mantenduko da, eta beldurra ematen du. Beldurra ematen du horrenbeste denbora egoera honetan pasa behar izateak. Arlo ekonomikoan ere beldur handia ematen du; izan ere, ezarritako mugekin lanean jarraitu dezaket, baina jende askok euren komertzioak itxi edota lanera joateari utzi behar izan dio".

Beldurra eta kontzientzia soziala

Gizartean izua nabari da, eta zenbait arlotan argi ikus daiteke. Askorentzako sortu den alarmismo mundiala gehiegizkoa da, beste askorentzako, berriz, beharrezkoa da kontzientzia soziala bultzatzea. Irazuk zera nabarmendu du: "Zentzuarekin jokatu behar da horrelako egoeretan. Ez da supermerkatuko guztia erosi behar, erosketak egin behar dituen jende gehiago baitago herrian. Arduratsua izan behar da, baina norbere-kerian erori gabe". "Norbanako bakoitzak bere izaera du. Bate-tik, egoera seriotasunez hartzen ez duen jendea dago; bestetik, beldur handia duten eta alarma-diren pertsonak daude. Arazoa arinkieriaz hartzea, hori da ulergaitza zaiona.

Gertaeren kronologia



Itxiera iragarri aurretik, hainbat merkatarik negozioa itxia erabaki zuten. AIURRI

Martxoak 13 Andoaingo Zumea kaleko denda ezaguna itxita zegoen "prebentzioagatik" dioen karteltxoak ipinita. Kale Nagusia eta Kaleberria artekoan, aldiz, "oporretan" irakur zitekeen. Nahiz eta Urrietakoa zabalik izan, Espainian fenomeno orokorra bilakatu zen.



Autobus zerbitzuan gidariaren segurtasuna kontutan hartu zuten. MUTRIKU

Martxoak 13 Neurri berriak ezarri zituzten, autobus zerbitzuan: "Ezingo da autobusera aurreko atetik igo. Gainera, ez da onartuko eskudirua txartela ordaintzeko. Gidaria isolatuta joateko prebentzio neurriak hartuko dira".



"Egoera larri horren aurrean %100ean erantzun ahal izango dugu". ELA

Martxoak 13 Gipuzkoako egoitzen eta eguneko zentroen sektoreko ELAko langileek bi urte daramatzate greban. Koronabirusaren zabaltzeak sortutako egoera larria ikusita, ELAko grebalariek greba atzeratzea erabaki zuten, egoera normaldu arte.

Gertaeren kronologia



Euskadiko Babes Zibileko Plana aktibatze biler. AIURRI

Martxoak 14 Euskadiko Babes Zibileko Plana (LAB) osatu eta lehen bileran neurriak zorroztea erabaki zuten: “Biztanleriaren osasunerako arriskuak bere horretan dirauelako”. Adinekoen eguneko zentroak eta ostalaritza ixtea eta erlijio, kirol eta gizarte mailako jarduerak etetea.



Elikagaiak erosteko mugimenduak baimenduta daude. AIURRI

Martxoak 14 Elikagai, farmazia eta oinarritzko osagaien erosketak egiteko, Osasun Etxetara joateko, lanera joateko, nagusi eta dependentzia egoeran bizi direnen zaintzarako eta antzeko premiazko egoerentarako Alarma egoera aktibatu zuen Sanchezek.



Ertzaintza. AIURRI

Martxoak 14 Estatu osoko polizia Fernando Grande-Marlaskaren esanetara geratu ziren, Espainiako Gobernuak Alerta Egoera agindu zuenetik. Egoera berriak Ejerzitoaren beharraz baliatzea aurreikusi zuen, premiazkoa ikusiz gero.



Txotx garaia bete-betean harrapatu du Koronabirusak eragindako krisiak. AIURRI

Amaitutzat ematen dute txotx denboraldia

MARTXOAK 13 Sagardotegietako nagusiek bukatutzat ematen dute txotx garaia. Galera ekonomiko handiak izango dituzte. Urrietako Eula sagardotegiak Aste Santu osteko asteetan irekitzeko itxaropena bizirik mantentzen du

Andoni Urbistondo URNIETA

Sagardotegiek ixtea erabaki zuten asteburuan, euren elkarteak horrela aholkatuta. Erabakiak ez ditu ezustean harrapatu, antzeko zerbait gerta zitekeela sumatzen baitzen, egoera ze bilakaera edukitzen ari zen ikusita. Garbi azaltzen du **Setiengo** Eugeniok: “Ikusten nuen bazeztorrela. Aurrena umeak izan ziren, gero jubilatuak, eta jakina, gero taberna eta jatetxeak izango ziren. Nire ustez lehena-gotik hartu behar zen erabakia zen. Etxean geratzeko agindua eman eta fuera!”.

Antzera jokatu du **Eulako** Aitor Iguaranek ere: “Elkartean hartutako erabakia da, eta ixtea onena. Egoskor jar zintezke, eta ez itxi, baina kontua ez da ardi beltzaren pare geratzea. Itxi, egoera asumitu eta kito, ez dago besterik”. **Oialumek**, aldiz, ez zuen itxi larunbatean, Osasun sailaren agindua larunbat gau erdian jarri zelako indarrean. Irekita edukita ere, inor ez zen agertu

Oialumetik. Erakundeek mezuak herritarrengana iritsi ziren, eta jendeak etxean geratzea erabaki zuen. Eugeniok dioenez, “erabakia hartu behar zutenentzat ere ez da erraza hartu duten erabakia hartzea. Erabaki drastikoak hartuz gero, akatsa egiteko beldurra handia da. Historia gauzak pasatakoan idazten da”.

Galera handiak izango dituzte sagardotegietako jabeek. “Martxo denboraldiko bihotza da, jende gehien bertaratzen den unea, eta asteburu gehienak galduko ditugu, ze itxiera bi asterako da, baina normalean luzatu egingo da. Gure sagardotegian 350 bat bezerok zuten egina erreserba asteburuan, 600 bat lagun astero, pentsa ze galera ekonomikoei buruz ari naizen”, dio Setieneko Eugeniok. Antzera pentsatzen du Iguaranek, eta galdu, jende askok galduko duela dio: “guk, noski, baina bakailaoa saltzen duenak, haragia, gazta, intxaurrak, autobus garraio enpresek... Eragina sagardotegietatik hara-

go doa, eta kolpea oso gogorra izango da”.

Galdutakoari buelta nola eman, baina? “Oinarri onak ditugu. Esan nahi dut, ez da krisiren bat jasaten dugun lehen aldia, eta aterako gara”. Iguaranek ere galerak handiak izango direla dio. Buelta ematerako orduan, aurre egin beharreko ordainketetan erakundeek esku hartzea beharko litzatekeela dio: “Norberaren diru sarrerak espero ez zen egoera larri batengatik bertan behera geratu badira, egin beharreko ordainketak ere atzeratzea litzateke normalena”.

Ixteko erabakia bi asterako da, baina Eugenioren ustez denboraldia bukatutzat eman liteke: “Aste Santua pasata jendeak beste gauza batzuk dauzka buruan: hondartza, mendia... denboraldia bukatutzat ematen dut”. Iguaran-ek, aldiz, badu itxaropena debekua bi astetan bukatu, “eta sikiera, apirileko azken bi asteetan egindako zuloari buelta emateko aukera izatea”.

Andoaingo bolondres taldea sortu da

MARTXOAK 14 Andoainen hainbat herritarrek talde bat osatu zutela iragarri zuten, arrisku egoeran dauden pertsonei laguntzeko. Ostiralean hasi ziren mugimenduak eta publiko larunbatean egin zen.


Mikel Arberas ANDOAIN

Eguerdian albistea eman zuen Aiurri.eus webguneak: Gazteek sortutako elkartasun eta laguntza iniziatiba jarri da martxan. Andoaingo Covid Bolondresak haurrak zaintzeko edota pertsona helduei erosketak egiteko laguntza eskaintzea dute xede.

Andoaingo Covid Bolondresak taldearen komunikatua:

"Covid-19 dela eta, ANDOAINEN arrisku egoeran dauden pertsonei laguntzeko asmotan, arrisku egoeran ez gauden bolondres talde bat sortu dugu. Argi utzi nahi dugu hasieratik, EZ garela inongo GKE, elkarte edota alderdi politikotakoetako kideak, ez irakasleak, ezta hezitzaileak ere. Antolatutako auzotarren talde bat gara, egoera honi ahalik eta hobekien aurre egiteko intentzioz.

- Etxeko erosketak egiteko laguntza behar baduzu deitu telefono honetara: 634 485 689.
- Haurrak zaintzeko laguntza behar baduzu, deitu telefono honetara: 688 624 099.
- Higienea zainduaz eta guztion osasuna kontuan hartuaz burutuko dira ekintza guztiak. Une honetan zuen laguntza behar dugu, herritarrona.



Andoaingo Covid Bolondresak

Andoaingo Covid Bolondresak taldearen irudia. AIURRI

Arriskuan dauden pertsonen zein bolondreson higienea eta osasuna babesteko maskarilak eta esku desinfektatzaileen gela behar ditugu.

Inguruan erizain, mediku edota farmazilaririk baduzu, gure zereginen esku bat botatzea eskertuko genizuke.

- Edozein motatako laguntza eskaintzeko aukera baduzu, jarri gurekin harremanetan:
 - Email-a: covid.bolondresakan-doin@gmail.com.
 - Instagram-a: @covid.bolondresakan-doin.
- Herritik herriarentzat eta bizitzak erdigunean!".

Txalo zaparrada

MARTXOAK 14 Andoainera eta Urnietara iritsi zen gauean balkoitik edo leihoetatik txalo egiteko mezua. Osasun arloko erizainen aldeko mezua zen. Aiurriko kanal ezberdinetan zabalduak bideoetan ikus daitezke jendeak bi herrietan txalo egin zuela. Bi deialdi ezberdin eginda zeuden, kantu egiteko eta txalo egiteko. Ez dira deialdi bakarrik izango.



AIURRI.EUS

Gertaeren kronologia



Makaldegiko gune estalia, hutsik. AIURRI

Martxoak 14 Ez ohiko ikuspegia zuen Makaldegia, larunbat goizean. Aparkalekua hutsik zegoen, auto gidariekin jakin bazekitelako larunbat goizean bertan aparkatzea galerazita dutela. Neurri berrien aurrean, ordea, azokako postuak jartzeko baimena atzera bota zuten.



Kale Nagusian terrazak ohikoak dira. AIURRI

Martxoak 14 Terraza zerbitzurik gabe ireki zituzten tabernak. Tabernariak jakitun ziren laster taberna zerbitzuak ere ixteko agindua iritsiko zela. Bien bitartean gehienak lanean ari ziren. Hori bai, terrazak bilduta zeuzkaten.



Leizotz industrigunea, larunbat goizean. AIURRI

Martxoak 13 Lan munduan ere eragina izan zuen egoera berriak. Astelehenetik aurrera neurriak zorrotz zituzten. Adibide modura, Itasako langileei ezarritako neurriak irakur daitezke aiurri.eus gunean. Besteak beste, langileen atarian tenperatura hartzeko erabakia.

Gertaeren kronologia



Santa Krutz eliza, igande goizean. AIURRI

Martxoak 15 Alarma Egoerak murrizketa sakonak eragin ditu, baita sinismen erlijiosoekin lotutako ekitaldiei dagokionez ere. Ikusita gainera, elizara gehienbat adineko jendea joaten dela, prebentzioa areagotu egin behar da. Arrisku taldea baita.



Caritasen egoitzatako bat Kaletxikin dago. AIURRI

Martxoak 15 Caritasek funtzio garrantzitsua betetzen du. Lanean jarraituko dute, moldaketekin: "Une honetan herritarren osasuna eta ongizatea bermatzea dugu helburu", horixe Andoaingo Caritasen oharra. Nolanahi ere, zerbitzua ematen jarraituko dute:

- Janari banaketa orain arte bezala egingo da.
- Arropa banatzeko zerbitzua eten egingo da.
- Eskaintzen dituzten ikastaroak bertan behera geratuko dira.
- Zumea 3 kaleko bulego zerbitzua telefonoz: 688 825 445.



Supermerkatuetako apalak eta hozkailuak egunez egun hustutzen joan ziren herritarrek. Argazkia martxoaren 13koa da. AIURRI

Elikagaiak ziurtatuta daudela adierazi dute

MARTXOAK 15 Eusko Jaurlaritzak, Elikaduraren Klusterrak eta Carrefour, Eroski, Mercadona eta Uvesco banatzaileek elikagaien erosketa arduratsua egiteko deia egin zuten prentsa ohar bidez

Erredakzioa URNIETA

"Euskadiko elikadura-kateak bermatuta dauzka elikagaien hornidura eta hornikuntza. Une honetan, elikadura oinarritzko zerbitzua da, eta guztion ardura da bertako profesionalak zaintzea, berme guztiekin lan egin dezaten", horixe zen joan zen igandean zabaldu zuten mezuaren lerroburu nagusia.

COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera ezartzen duen Errege Dekretua indarrean sartu denez, erakundeek eta merkataritzaren arloko enpresa nagusiek mezu bateratua zabaldu zioten euskal gizarteari. Euskadik elikadura-kate egituratu eta orekatu bat duela zioten, eta hornidura bermatuta zegoela erantsi. "Elikadura-produktuen ekoizpenaren, eraldaketaren, banaketaren eta salmentaren funtzionamendu egokia eskaintzeko prest" da-goela, alegia.

Salbuespen-egoerak eraginda, salmenten igoera asko handitu

da egun hauetan. Horren aurrean arduraz jokatzeko eskatu zuten: "Agiri honen sinatzaileek euskal herritarrei dei egiten diete kontsumo arduratsuko praktikarekin bat egin dezaten eta elikagaien salmenta-guneetara joan daitezen, unean uneko benetako behararen proportzioan erosteko".

Bestalde, dendari eta banatzaileentzat errespetuzko jokabidea

aldarrikatu zuten: "Elikadura-katea profesionalak osatzen dute, eta errespetatu eta lagundu egin behar ditugu, alarma-egoera horretan beren eginkizunak behar bezala bete ditzaten. Azpimarratzekoa da egiten ari diren ahalgina, eta, bereziki, jendeari arreta zuzenean ematen dioten pertsonak, oso lan biziarekin eta erabat agerian".

Nekazarien egoera zaila

Osasun krisiaren hasiera honetan nekazarietako jokabidea ulertzea kosta egiten da. Aurreko astean postuak ipintzeko baimena bertan behera geratu zen. Ondorioz, nekazariak eta gainerako feriantek euren lana egin ezinik geratu dira. Aldiz, supermerkatuetara joateko aukerari eutsi zitzaion. Eta bertan, guztiok ikusi genuenez, jende pilaketa handiak egin ziren. Osasunaren ikuspegitik, dendariak eta erosleak kutsatzeko arrisku egoera errealean izan ziren. Merkatu plaza egiten denean, saltokiak aire librean egoten dira eta metro edo metro eta erdiko distantzia mantenduta, negozioari eusteko moduan egon daitezkeela ulertzen da. Egoera zailan dagoen sektorea da, nekazariena. Euren lehengaiek iraungitze data azkarra dute, horrek ekar dezakeen kaltearekin.



Zer dagoen baimenduta, eta zer ez

MARTXOAK 15 Larunbatean eta igandean herritar eta merkataritza asko prebentzio neurriak serio hartzen hasi ziren, baina ez zen joera hori gizarte osora zabaltu. Urnietako Udalak "Zer dago baimenduta eta zer ez" gida modukoa argitaratu zuen



Herritarren arteko prebentzio neurria Stop liburutegien atarian. Elkarrengandik urrunduta egotea aholaktu dute. AIURRI

Mikel Arberas URNIETA

Ezingo da kalera atera:

- Haurrak parkera edo kalera eramateko.
- Paseatzeko, korrika egiteko, bizikletan ibiltzeko,...
- Lagunak eta senideak bisitatzera joateko, zaintza behar duen norbait ez bada behintzat.
- Bidaiatzeko.
- Etxera eramateko jana egiten duten jatetxeak bakarrik egongo dira irekita, baina ezingo da barruan ezer hartu. Ostalaritza, merkataritza eta aisialdi gune guztiak itxita egongo dira.

Baimendutako kasuak:

- Elikagaiak, sendagaiak eta oinarritzakoak diren gauzak erosteko (ibilgailuarentzako erregaia, adibidez). Ahal den denbora gutxien egon beharko da toki horietan, eta metro eta erdiko (1,5 m.) tartea errespetatu beharko da beste bezeroekin.
- Osasun zentroetara joateko.
- Lanerako joan-etorria egiteko.
- Menpekotasuna dutenak zaintzeko (adinekoak, adin-txikiak, menpekotasunen bat dutenak zein bereziki ahulak diren pertsonak).
- Finantza erakundeetara eta aseguru etxeen bulegoetara joateko.
- Ezinbesteko egoerak edo beharrrak kudeatzeko.
- Aurrekoen tankerako beste edozein jardueratarako, behar bezala justifikatuta badago. Adibidez, txakurra paseatzera ateratzea.
- Aurreko kasu horietarako etxetik ateratzen den pertsona, bakarrik aterako da beti.
- Autoz pertsona bakarra joan daiteke ibilgailuan. Menpekotasuna duten pertsonak lagunduta joan ahal izango dira.

Megafoniaz oharra

MARTXOAK 15 Udaltzaingoa eta Ertzaintza etxean geratzeko ohartarazpenak egiten aritu ziren. Herriotan megafonia entzun zitekeen. Ez zen segurtasun indarrek egun haietan erabili zuten neurri bakarra izan. Kontrolak egin zituzten errepidean eta kaleetan, agintariek agindutako dekretua betearazteko helburuarekin.



AIURRI.EUS

Gertaeren kronologia



Ontza elkartearen ataria. AIURRI

Martxoak 15 Erakundeek dekretuak iritsi aurretik ere, hainbat elkarte gastronomikoetako zuzendaritzatan itxiera erabaki zen. Hasiera batean 15 eguneko izango da itxiera. Krisiaren arabera eraldatuz joango da neurri hori.



San Juan plazan dago Bertan arretarako bulegoa. AIURRI

Martxoak 16 Urnietako Udalak Bertan herritarren arretarako zerbitzua itxia erabaki zuen. Udalarekiko harreman guztiak telefonoz edo erregistro elektronikoko bidez egitea erabaki zuten. Telefonoz artatzeko ordutegia, astelehenetik ostiralera: 08:00-14:00.

- Bertan (informazio orokorra): 943 00 80 00.
- Udaltzaingoa (segurtasuna): 943 00 80 90.
- Kontu hartzaileak (fiskalitatea): 943 00 42 24.
- Gizarte Zerbitzuak (laguntza): 943 00 83 49.



andoaINDARRA
euskaraz

Gertaeren kronologia



Ataria Anbrosia Olabide eraikinean kokatu zuten, udaberrian. AIURRI

Martxoak 16 Andoaingo Udalak neurri berriak iragarri zituen:

- Udal Zerbitzuak: Herritarrei telefonoz eta bitarteko telematikoen bidez erantzutzea zaie bakarrik. Presazkotzat eta ezinbestekotzat jotzen bada, alde aurreko hitzordua emango zaio.
- Kale hezitzaileak eta psikologia zerbitzuak: Familiako esku-hartzeak eta psikologoarekiko terapiak eten egingo dira, abisu berria eman arte.
- Udal bilkurak: Udaleko organo kolegiatuen bilkurak (Batzorde Informatzaileak, Tokiko Gobernu Batzarrak, Udalbatzarrak eta Kontratazio-mahaiak), bertan behera geratuko dira abisu berria eman arte.

Bus zerbitzu guztietan murrizketak iragarri dituzte

MARTXOAK 16 Ibilbide eta ordutegi berriak kontsulta daitezke Aiurri.eus webgunean

Erredakzioa ANDOAIN

Koronabirusak eragindako egoera berria dela medio, Andoaingo Udalak egokitu egin ditu Hiribus zerbitzuaren ordutegiak: "Osasun-larrialdiko adierazpena egin eta Euskadiko Babes Zibileko Planaren (LABI) aholku-batzordearen bileraren ostean, eta Covid-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera estatu osoan deklaratu ondoren, Euskadiko Garraio Agintaritzak garraio publiko guztiei eragiten dien irizpide berriak ezarri ditu. Honenbestez, Andoaingo Udalak egokitu egingo ditu Hiribus zerbitzuaren ordutegiak".

Martxoaren 16an aktibatu zen ordutegi berrian, zerbitzuak finkatzerakoan honako irizpideak erabili dira: jendea lanera ala osasun zentzora joatea erraztea, eta oinarritzko beharrak asetu ahal izatea". Hilerrirako zerbitzua

berriz, bertan behera geratuko da.

Hiribusa, ordutegia

Astelehenetik-ostiralera:

- 07:30 eta 08:30 ohiko itzulia, Alejandro Calonge auzunea barne.
 - 10:30 eta 11:30 ohiko itzulia Alejandro Calonge auzunea barne.
 - 16:00 eta 17:00 ohiko itzulia Alejandro Calonge auzunea barne.
- Larunbatean:
- 09:30 eta 12:30 ohiko itzulia Alejandro Calonge auzunea barne.

Lurraldebus

Lurraldebusen zerbitzuak %40 eta %60 artean murriztu dira, ohiko eskaintzarekin alderatuta. Ospitale-zerbitzuak izan ezik, horietan zerbitzua bere horretan mantenduko baita.

Sindikatuak bermeak eskatu dituzte

MARTXOAK 16 Asteburua igarota, lanera itzultzeko garaia iritsi zen. Lanaldiari dagokionez, Euskal Herriko sindikatu nagusiek oharrak zabaldu zituzten. Denek ere langileen osasuna bermatzea eskatzen zuten

Erredakzioa ANDOAIN

ELA sindikatuak langileen eskubideak eta euren osasuna lantokietan defendatzeko argibideak eskaini ditu: "Zaindu zaitez, zaindu gaitez. Gure eskubideak defendatu ditzagun!".

"Gobernuek hartutako erabakiekin langile asko lan egitera behartuta egongo dira, beren osasuna jokoan jarrita, sortutako egoera honetan lantokietan osasuna zaintzea da lehentasuna. Pertsonak zaindu behar ditugu. Horrekin batera, gure eskubideak babestu behar ditugu testuinguru honetan atzera-pausorik eman ez dadin. Enpresariak bermatu egin behar dute langileak Koronabirusaren aurrean babesten dituztela eta lanpostu bakoitzerako prebentzio neurri egokiak hartzen direla.

- Ahal den lan guztia etxetik bideratu behar da. Aurrez-aurre soilik ezinbestekoa den lana egin behar dugu eta hau exijitu behar dugu.
- Ezinbestean lantokian lan egin behar izanez gero, aglomerazioak bai ala bai ekidin behar dira. Enpresariak, bereziki, lankide eta bezeroekiko distantziak gorde daitezkeela bermatu behar dute eta garbiketarako produktuak gure esku dauzkatala.
- Lanaren izaerarengatik esandako distantziak gordetzea ezinezkoa balitz, babes-neurri indibidualizatuak exijitu behar ditugu (EPIak). Hainbat esparrutan (osasungintzan edo zahar-egoitzetan) protokolo bereziak daude, hauek jarraitu behar dira.
- Bereziki sentiberak diren pertsonak (arnas-aparatuko edo bihotzeko gaixotasunak daukatenak, haurdun dauden emakumeak edo hauekin harremanetan dauden pertsonak) zaindu behar ditugu. Enpresei exijitu langile hauek etxean geratu ahal izatea".



LAB sindikatuko ordezkariak. LAB

ERREGULAZIO ESPEDIENTE ETA ALDI BATERAKO EEE-REN AURKA AGERTU DIRA

LAB sindikatua

LAB sindikatuarentzat osasuna lehentasuna da, eta behar beste baliabide hartu behar dira krisi sanitarioari aurre egiteko eta kolektibo ahulenak babesteko. "Osasun zerbitzu pribatua bostere publikoen zerbitzura jarri behar da. Behin behinean bada ere, gainezka dagoen zerbitzu publikoak duen aterabidea da". Koronabirusaren krisiak zaintza krisiaren gordintasuna agerian utzi duela berretsi dute, eta Euskal Herrian gutxieneko zerbitzuak ezartzeko unea dela azpimarratu dute.

Era berean, langileen osasuna eta eskubideak babesteko neurriak eskatu dituzte: "Osalanek eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak irizpide zehatzak finkatu eta horien aplikazioaren jarraipena egin beharko lukete;

aldiz, prebentzio neurrien zehaztapenaren ardura enpresen menpe dauden Prebentzio Zerbitzuengan delegatu du. Gauzak horrela, ez dago bermatzerik enpresek behar bezala jokatu dutenik".

Lan osasuna eta lan eskubideak babesteko neurriak dagokionez, "enpresei zuzendutako eskaera eta exijentzien artean, lan osasunari dagokionez, langile guztientzat berehalako informazioa eta formazioa eskatu dugu, baita enpresak protokoloa ezartzea ere".

Era berean, ez dugula Erregulazio Espedienteak eta aldi baterako EEEak onartuko nabarmendu dute: "Ez dugu onartuko Aldi Baterako EEEen kostua eta kaltea langileon bizkar erortzerik, EAEko eskola jangeletako langileekin egin duten moduan".

Zaintzari dagokionez, "Madrilgo Gobernuak komentatu du laguntza bat sortzeko aukera legokeela egoera hauei erantzuteko. Honen azterketa espezifiko egingo du LABek eta, bitartean, ezinbesteko betebeharragatik baimen ordaindu bezala kudeatu behar da zaintzagatiko baimena".

KORONABIRUSA

ZER EGIN DEZAKET NIRE BURUA BABESTEKO?



**ESKUAK SARRITAN
GARBITU.**



**EZTUL EDO DOMINISTIKU EGITEAN,
ESTALI AHOA ETA SUDURRA
UKONDOAREKIN EDO ZAPI BATEKIN.**

BOTA ZAPIA BEREHALA ETA GARBITU
ESKUAK ALKOHOL-OINARRIA DUEN
ESKUETAKO DESINFEKTATZAILE
BATEKIN EDO UR ETA XABOIAREKIN.



**MANTENDU METRO BATEKO TARTEA,
GUTXIENEZ, EZTUL EDO DOMINISTIKU
EGITEN DUTEN EDO SUKARRA DUTEN
PERTSONENGANDIK.**



**EZ UKITU BEGIAK,
SUDURRA ETA AHOA.**



**ETXEAN ETA LEKU PUBLIKOETAN
ESKUEKIN UKITZEN DIREN GAINAZALEN
GARBIKETA AREAGOTU.**



OSAKIDETZA ETA
OSASUN SAILAREN WEB ORRIETAN



Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



"Teleirudimena etxetik etxera" atal berria webgunean. Testuak Garazi Kamiok idatziko ditu, eta argazkiak Ane Jalonek. ANEJALON

Aiurri astekariaren banaketa

Osasun alerta dela eta, Aiurri astekariaren banaketa moldatu egingo da. Egoerak iraun bitartean, Andoainen eta Urnietan astekaria soilik kioskoetan eta prentsa saltzen den tokietan eskuratu ahal izango da. Ez da etxez etxeko banaketa egingo. Aiurrik eskaintzen duen informazio zerbitzua (internet bidezkoa eta paperezkoa) lantaldearen lan baldintzekin uztartu behar da, bereziki banatzaileen kasuan.

Egoerak sortu duen zailtasunagatik izan dela adierazi beharrean gaude.

Bakartze egoerari aurre egiteko eduki berriak

WWW.AIURRI.EUS Etxeko egonaldia arintze aldera Aiurriko erredakzio taldeak eduki berriak eskainiko ditu webgunean. Literatuta, argazkiak, ilustrazioa, bertsoa... eduki sorta berria ikusgai izango da Aiurri.eus gunean eta plataforma ezberdinetan

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Bakartze kolektiboan sartuta, eta egonaldia arinago egite alde-
ra, Aiurri.eus bidez zabaldutako
eduki berriak eskainiko dira.
Horietako bat da Garazi Kamiok
eta Ane Jalonek abiarazi dutena.
Egunero hizordua duzue Aiurri-
n, iluntzean hasita. Jarraian, igan-
de gauez idatzitako lehena.

TELEIRUDIMENA

ETXETIK ETXERA

Garazi Kamio & Ane Jalon

"Lokarri berde bat lepoan zint-
zilik, eta hari lotuta giltza bat.
Etxeko eskaratzeko giltzarena
zen. Ez dakit zenbat urte izango
nituen, 8 edo 9, baina jakin ba-
dakit hura izan zela nire auto-
nomia pertsonalaren lehen gai-
lurretako bat. Etxera bakarrik
joan ahal izateko lehen giltzarria
izan zen zintzilikario hura.

Bihartik aurrera, etxera baka-
rrik bueltatzea eta etxetik baka-
rrik irtetea erronka izango da
guztiontzat. Sekula bizitu ez
dugun antzezlanak daukagu begien
aurrian eta bai, aitor dezagun,
sekulako beldurra ematen du.

Etxean geratuko gara, gehien
maite dugun horri merezi duen
arreta eta lasaitasuna eskaintzen:
geure burua sekula baino hobe-
to zaintzen.

Ruper Ordorikak euskarari
eskaini zion "Zaindu maite duzun
hori" kanta baina guk kanta kon-
finatu, arrazoiak aldatu eta gure
etxetik zuenera eramatea dugu
helburu. Zaindu maite duzun
hori, merezi du eta. Gure aginta-
ri goren bilakatu direnak agintzen
diguten bitartean, egunero zuen
etxeetara sartzen saiatuko gara.
Lasai, ez kendu pijamak, ez orraz-
tu gehiegi, ez baitaukagu zuen

etxeko giltzarik lepotik behera
zintzilik. Irribarre erdia sortara-
ziko bagenizue, gu pozik.

Anek eta biok zuen etxeetara
gerturatu nahi dugu, teleirudi-
mena erabiliz. Larraimenik eta
Aranak bezala, guk ere hitza
asmatu dugu, zer kristo! Telei-
rudimenez, zuen etxeetako kon-
finamendu txiki hau arindu
nahiko genuke, segundo batzue-
tan bederen. Andoaingo argazkiak
bidaltzen, adibidez. Egon, herria
hor dagoelako, gezurra dirudien
arren. Erronka txikia jarri diogu
geure buruari: etxetik idaztea
eta hitzez zein argazkiz zuek
ilustratzea. Gaur kalea omenduz
hasi nahi dugu abentura txiki
hau. Parkeetara itzuliko garela-
ko eta barkatu atrebentzia (eta
barka nazatela gure ilobek), par-
keetako haurren aurka maldi-
zioka berriz ere hasiko garelako,



Garbiñe Ubedak ilustrazio bana argitaratuko du Aiurri.eus gunean.

guk uste baino lehenago. Har-
dezagun egun multzo hau Olen-
tzerok eta Errege Magoek etxera
etorri behar zuteneko atzera
kontaketa hura bezala; egun bat
gutxiago kalera irteteko.

Gure etxetik ez dugu zalaparta
handirik sortuko, egon lasai zuen
gotorleku txikietan. Gustu ba-

duzue, hementxe aurkituko gai-
tuzue, ez gara etxetik mugituko.
Jarriko dizkizuegu erronka txi-
kiak, bi minutuz bada ere ikus-
pegi desberdin baten gerizpean
egoteko.

Hasi da erronka, inoiz baino
gehiago maite dugun hori zain-
tzekoa. Baietz irabazi!